

## UDALBATZAREN ERABAKIA:

**LEHENENGOA.**- Hasierako onespena ematea indarreko Udal Araudi Organikoan egindako aldaketa hauei:

1. 1. artikulua honela idatzita geratuko da:

«1. artikulua. Araudiaren helburua.

*Araudi honen helburua da honako hau arautzea, indarrean dagoen Legeriaren arabera:*

- a) *Udalaren antolaketa-araudia.*
- b) *Udal organoen funtzionamendua.*
- c) *Udalbatzako kideen estatutua.*
- d) *Administrazio antolaketa.*

*Herriarren parte-hartzea, berriz, berezko araudi bidez eta Udalak horri buruz hartutako erabaki bidez erregulatuko da».*

2. Udal Araudi Organikoaren 3. artikuluko 1. atala honela idatzita geratuko da, hitzez hitz:

«3. artikulua. 1. Udalak objektibotasunez bilatzen ditu interes orokorrak; eraginkortasun, deszentralizazio, deskontzentrazio eta koordinazio printzipioei jarraiki jarduten du; eta Legeari zein Zuzenbideari atxikitzen zaio, guztiz. Era berean, Udalak fede onaren eta bidezko konfiantzaren printzipioak errespetatuko ditu, bai eta Gardentasunari, Gobernu Irekiari eta Herriarren Parte-hartzeari buruzko indarreko Araudi Organikoan ezarritako printzipioak ere».

3. 4.1, 46... artikuluetan, «Udaleko Gobernu Batzordea» esamoldearen ordez, «Tokiko Gobernu Batzarra» jarri behar du.

4. 4. artikuluko 4. eta 5. atalak, honela idatzita geratuko dira:

«4. Banderen gainean: Banderek, horien sinboloek eta horien erabilerak, indarrean dauden arau juridikoetan zehaztutakoa bete beharko dute.

a) *Hauxe da Basauriko bandera:*

*Bandera angeluzuzena, 2:3 proportziokoa; zapi gorriaren gainean gurutze urdina, zabalera osoaren 1/5eko zabalera duena, alde batetik bestera doana; horrez gain, gurutze greko eta lis loredun zuria, 4/5eko zabalera duten besoekin eta 1/10eko zabalarekin (neurri horiek biak, banderaren zabalera oinarri hartuta).*

- b) *Udal zutoihalak alkatearen funtzioa irudikatuko du, eta hark baino ezin izango du erabili. Honelakoa izango da:*

*Lau angeluko zutoihala, 1:1 proportziokoa; zapi gorriaren gainean gurutze urdina, zabalera osoaren 1/5eko zabalera duena, alde batetik bestera doana; horrez gain, gurutze greko eta lis lorehun zuria, 4/5eko zabalera duten besoekin eta 1/10eko zabalarekin (neurri horiek biak, zutoihalaren zabalera oinarri hartuta).»*

*«5. Armarri eta zigiluaren gainean: Armarria eta zigilua Udalak onetsitakoak izango dira. Partikularrek egin dezaketen erabilera, edozein kasutan ere, udal lizentziaren menpe egongo da.»*

5. 11. artikuluko 2. atala, modu honetan idatzia geratuko da:

*«2. Zinegotziek udalerritik kanpo hamar egunetik gora emango balituzkete, inguruabar hori Alkatetzari jakinarazi beharko diote, ahoz, idatziz edota edozein bide telematikoren bidez, bai pertsonalki, bai talde politikoaren bozeramailearen bidez, eta zehaztu egingo dute zenbat denbora aurreikusten duten kanpoan egotea.»*

6. 12. artikuluko 3., 7. eta 8. atalak, honela idatzita geratuko dira:

*«3. Udalbatzari dagokio, Alkatetzaren proposamenari jarraiki, eta aurrekontuan horretarako egindako esleipen osoaren barnean, honako hauek biak zehaztea: batetik, zeintzuk diren erabateko arduraldi erregimenean bete daitezkeen Udalbatzako karguak, eta zeintzuk bete daitezkeen arduraldi partzialeko erregimenean; bestetik, horien kopuruak, lege ezarritako gehieneko kopurura arte; eta azkenik, horietako bakoitzari dagozkion ordainsariak, duten erantzukizun-mailaren arabera. Ordainsari horiek, urtean hamalau ordainketa partzialetan banatuko dira, eta apartekoak ekainean eta abenduan ordainduko dira. Zenbatekoak, gainera, osorik jasoko dituzte izendatutako zinegotziek, baldin eta sortzapen-datan euren kargua egikaritzen ari badira; data hori baino lehen zinegotzi izateari utziko baliote, berriz, dagokion zati proportzionala jasotzeko eskubidea izango dute.»*

...

*7. Aurreko ataletan araututako arduraldi partzial edo osoa aitortua eta onartua ez daukaten Udalbatzako kide guztiek, asistentziagatik eskubideak jasoko dituzte, kide diren organo kolegiatuetako bileretara joateagatik, Bozeramaileen Batzordea barne. Udalbatzak finkatuko ditu eskubide horien zenbatekoak eta arauak. Ordainketak hileroko egingo dira, hilabetea bete eta gero.*

8. Zinegotzi guztiek, arduraldi partziala edo osoa aitortua eta onartua daukatenez kanpo, asistentziako eskubideak jaso ahal izango dituzte Udalaren menpeko erakundeen zuzendaritza-arganoetan parte hartzeagatik, baldin eta erakunde horiek berezko nortasun juridikoa badute, Udalaren kapitala edo kontrola duten enpresetako administrazio kontseiluak badira, edo langileak hautatzeko probetako epaimahaiak badira. Zenbatekoak, berriz, unean-unean indarrean leudekeen xedapenetan ezarritako kopuruaren arabera izango dira, Udalbatzak horrela erabakitzen badu, eta hark finkatutako baldintzetan.»

7. 14. artikuluko 1. atala, modu honetan idatzia geratuko da:

«14. artikulua. 1. Udalbatzako kide guztiek eskubidea izango dute Alkatetzarengandik edo arloetako zinegotzi ordezkariengandik jasotzeko Udalbatzaren esku dauden aurrekariak, datuak edo informazioa, baldin eta euren lana gauzatzeko beharrezko badute. Alkatetzak eta arloetako zinegotzi ordezkariak, euren aldetik, zinegotziek eskatutako informazio guztia eman beharko dute. Edozelan ere, Gardentasunari, Gobernu Irekiari eta Herritarren Parte-hartzeari buruzko indarreko Araudi Organikoak horri buruz xedatutakoa aplikatuko da.»

8. 16. artikuluko 1. ataleko a) letra, modu honetan idatzita geratuko da:

a) Edozein espedienteren edo dokumentu-aurrekariaren kontsulta, orokorki, bakar-bakarrik egin ahal izango da, lehenengo eta behin, espediente edo dokumentu hori dagoen tokian bertan; bestela, Artxibo Orokorrean egin beharko da kontsulta, Udalbatzako kideari espediente edo dokumentua bera, zein horren kopia entregatuta. Kopia bi kasutan egingo dira, bakar-bakarrik: aurreko artikuluan aipatutako kasuan, hau da, zinegotziek informazioa libreki eskuratzeko eskubidea egikaritu nahi dutenean; edota Alkatetzak zein dagokion arloko zinegotzi ordezkariak horretarako baimena ematen duenean. Kopia, ahal dela, elektronikoki egingo dira: dokumentuak eskaneatuta edota formatu elektronikoa bidaliko dira eskatzaileak adierazitako helbidera. Dagokion bulegoko buruak behar bezala arazoitzen badu hori ez dela posible, kopia euskarri fisikoan emango dira.»

9. 17. artikulua honela idatzita geratuko da:

“17. artikulua. Udaleko zinegotzi bakoitzak bere gutunontzia izango du Udaletxean, gutun ofizialak, barrukoak zein kanpokoak, jasotzeko. Era berean, helbide elektronikoa ere izango dute, eta banaketa-talde bat, talde politiko bakoitzeko, lehenago adierazitako xede berberarekin.

10.19. artikuluan atal berria txertatuko da: 3. atala. Horren ondorioz, beste atal guztiak berriro zenbakituko dira. Honela geratuko dira:

*«3. Udal talde politiko bat eratu eta mantentzeko, zinegotzi bi izan beharko dira, gutxienez, udal agintaldiaren hasieran. Talde mistoa, ordea, zinegotzi bakarrarekin eratu daiteke.»*

11.19. artikulua 4. atala, berriz (lehen 3. zena), honela idatzita geratuko da:

*«4. Ezin izango dute talde politiko bereizia eratu hauteskundeetara alderdi, federazio, koalizio edo hauteskunde-talde beraren barruan aurkeztu diren zinegotziek.»*

12.22. artikuluko 1. atalean a) letra berria sartuko da (eta, ondorioz, osteko guztiak birformulatuko dira). Honela geratuko litzateke:

*«22. artikulua. 1. Talde Mistoa, honako hauek osatzen dutena da:*

*a) Udal hauteskundeetara alderdi, federazio, koalizio edo hauteskunde-taldeko hautagai gisara aurkeztu, baina talde propioa eratzeko 19. artikuluko 3. zenbakian finkatutako gutxienerako kopurua lortu ez duten zinegotziek.»*

13.25. artikulua honela idatzita geratuko da:

*«25. artikulua. Talde politiko bakoitzak bulego edo lokal bat izango du udaletxean, nahi bezala bildu eta jendeari harrera egiteko. Horrez gain, Alkateak edo Giza Baliabideen Arloko ordezkariak baliabide materialen gutxienerako azpiegitura batekin hornituko du talde politiko bakoitza. Zehazkiago, Alkatearen eskumena izango da, ordezkariak entzun eta gero, talde bakoitzari lokala edota bulegoa esleitzea, Udalbatza lortutako ordezkariaren arabera, eta hori gauzatzeko behar diren neurriak hartzea. Horren kariaz, hautatua izan den alkateak, kargu hartu bezain laster eta, betiere, legealdiaren hasieran Udala eratzeko aparteko osoko bilkuraren ostean egin ohi den aparteko osoko bilkura baino lehen, dauden bulegoen banaketa jasotzen duen plana aurkeztuko die bozeramaileei. Horren xedea da argitzea «zer nahiago duten, eta jakitea zein beharizan dituzten, materialak eta antzekoak».*

14. 28. artikuluko 3. atala, modu honetan idatzia geratuko da:

*«Talde politikoek, aurreko zenbakian aipatutako zuzkidura horren gaineko berariazko kontabilitatea eraman beharko dute, eta kontabilitate hori Udalbatza eskutik jarriko dute, hark eskatzen duen gutzietan. Udal webgunean argitaratuko da talde politiko bakoitzari esleitutakoa.»*

15. Udal Araudi Organikoaren 30. artikulua, modu honetan idatzia geratuko da:

*«30. artikulua. 1. Udalbatzako kideen interesen erregistroak eratuko dira Udaleko Idazkaritza Orokorrean. Idazkari nagusiaren lana da erregistro horiek zaintzea eta zuzentzea. Erregistroa, berez, Udalbatzako kideen aitortzen bildumez osatuta egongo da.*

*2. Udalbatzako kide guztiek egingo dute balizko bateraezintasun-arrazoiei buruzko aitortpena, baita diru-sarrerak ekartzen dizkien edo ekarri ahal dizkien edozein jardueraren gaineko aitortpena ere. Halaber, beren ondare-ondasunei buruzko aitortpena ere egingo dute.*

*3. Bi aitortpen horiek Udalbatzak onetsitako eredu-orrietan egingo dituzte, kargua hartu aurretik, agintealdia amaitu eta kargua uztean, nahiz egitatezko inguruabarrak aldatzen direnean.*

*4. Ondasun eta jardueren aitortpenak urtero-urtero argitaratuko dira, eta agintealdia amaitzen denean ere bai. Datuok, bestalde, Gardentasunari buruzko webgunean argitaratuko dira.*

*Beste alde batetik, aitortpen horiek izaera publikoko erregistro hauetan inskribatuko dira:*

- a) Balizko bateraezintasun-arrazoiei buruzko aitortpena, eta diru-sarrerak ekartzen dizkien edo ekarri ahal dizkien edozein jardueraren gaineko aitortpena, Udalean eratutako Jardueren Erregistroan inskribatuko dira.*
- b) Ondare-ondasun eta eskubideen aitortpenak Udaleko Ondare-ondasunen Erregistroan inskribatuko dira.*

*5. Udal-ordezkariek batzuek aukera izango dute euren ondare-ondasun eta eskubideei buruzko aitortpena foru aldundiko idazkariaren aurrean, edota, hala balitz, dagokion autonomia erkidegoko organo eskudunaren aurrean aurkezteko. Horrela egin ahal izango dute euren kargua dela-eta, euren segurtasun pertsonala, ondasunena zein negozioena, senitartekoena, bazkideena, langileena, harreman ekonomikoa zein lan-harremana duten pertsonena mehatxatuta suertatu ahal bada. Aitortpen horiek Ondare-ondasunen Erregistro Berezian inskribatuko dira; erregistro horiek, aipatutako erakundeetan eratuko dira, beren-beregi xede horretarako.*

*Kasu horretan, ordezkariak aitortpenak egin izanaren egiaztagiri soila aurkeztuko diote udal idazkariari. Egiaztagiriak, horrez gain, aitortpena Interesen Erregistro Berezian (aurreko paragrafoan aipatutakoa) inskribatu dela jaso beharko du. Izan ere, bertako funtzionarioak egingo du egiaztagiri hori.»*

16. Udal Araudi Organikoaren 40. artikulua, modu honetan idatzita geratuko da:

*«40. artikulua. Alkateak, hartutako erabakien berri eman beharko dio Udalbatzari. Erabaki horiek, gainera, Intranetean argitaratuko dira. Era berean, larrialdi-egoerak direla-eta emandako bando eta jarraibideen berri ere eman beharko du.»*

17. Udal Araudi Organikoaren 48. artikuluari 3. atal hau erantsiko zaio:

*«3. Salbuespenez, berari dagokio erabakiak hartzea, Araudi honetako 78 bis artikuluan aurreikusitako kasuetan.»*

18. Udal Araudi Organikoaren 53. artikulua, modu honetan idatzita geratuko da:

*«53. artikulua. Bilkurarako deialdia egitearekin batera, izan ohikoa zein ezohikoa, dagokion espedienteak irekiko da. Bertan honako hauek egon behar dute:*

- a) Idazkaritza Nagusiak prestatu, eta Alkatetzaren esku jarritako espedienteen zerrenda, horiek amaituta egon eta gero.*
- b) Alkatetzak zehaztutako eguneko gai-zerrenda.*
- c) Udalbatzako kideei helarazitako jakinarazpenen egiaztagiriak. Egoki balitz, jakinarazpena telefono bidez edo posta elektroniko bidez egin dela adierazten duen eginbidea.*
- d) Gai-zerrenda Udalaren webgunean argitaratu izanaren egiaztagiria.*
- e) Aurreko bilkurako aktaren zirriborroa, onetsia izan dadin, eta akta horren laburpena.*
- f) Hartutako erabakiak Internet bidez Estatuko edo Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioetara bidali izanaren egiaztagiria, legez hala egitea dagokionean.*
- g) Aktan eta laburpenean dauden erabakiak argitaratzea, hala egitea onetsi eta gero.»*

19. Udal Araudi Organikoaren 54.2. artikulua, modu honetan idatzia geratuko da:

*«2. Eguneko gai-zerrendan bakar-bakarrik sartu ahal izango dira aurretiaz, gaiaren arabera, dagokion informazio batzordearen irizpena edo txostena duten kontuak, edota dagokion informazio batzordeari kontsultatu zaizkionak. Aurretiazko izapide horretatik salbuetsita daude mozioak, eskaerak eta galderak.»*

20. Udal Araudi Organikoaren 56.1. artikulua, modu honetan idatzita geratuko da:

*«56. artikulua. 1. Eztabaidarako, eta bere kasuan, bozketarako erabiliko den eguneko gai-zerrendan sartutako gaien buruzko dokumentazio guztia*

*Udalbatzako kideen esku egon beharko da, deialdiko egun beretik bertatik, Idazkaritza Orokorrean. Horrek ez dio traba egingo Gardentasunari, Gobernu Irekiari eta Herritarren Parte-hartzeari buruzko indarreko Araudian xedatutako informazio eskubideari.»*

21. Udal Araudi Organikoaren 57. artikulua, modu honetan idatzia geratuko da:

*«57. artikulua. 1. Udalbatzak bere bilkurak udaletxeko Bilera Aretoan egingo ditu. Ezinbesteko kasuetan, ordea, beste eraikin edo lokal bat antolatu ahal izango da xede horretarako; kasu horietan, horren berri eman beharko zaie aurretiaz Udalbatzako kide guztiei, bai deialdian bertan, bai Alkateak, Erregelamendu honetako 52.4 b) artikuluan aurreikusitako moduan emandako ebazpen bidez. Edozein modutan, inguruabar hori aktan jaso beharko da.*

*2. Salbuespenez, iraileko ohiko osoko bilkurak San Migeleko Taberna Nagusiko bilera aretoan egingo dira: garai batean han egon zen udaletxea, eta eraikinak badu halako balio historiko bat. Horrela egingo da, Udalbatzak berariaz kontrakorik xedatzen ez badu, edota ezinbesteko egoerek besterik agintzen ez badute; kasu horietan, aurreko paragrafoan xedatutakoa aplikatuko da.»*

22. Udal Araudi Organikoaren 61. artikuluen 3. atala, modu honetan idatzita geratuko da:

*«3. Lehen aipatutakoaren kalterik gabe, herritarrek eta herriko elkarte eta taldeek ere eskaerak eta galderak egin ahal izango dizkiete Udalaren gobernu-organuei, baita Udalbatzari ere, Gardentasunari, Gobernu Irekiari eta Herritarren Parte-hartzeari buruzko indarreko Araudi Organiko honen 36. artikulua xedatutako baldintzetan.»*

23. Udal Araudi Organikoaren 65. artikuluen 5. atala, modu honetan idatzia geratuko da:

*«5. Ohiko osoko bilkuretan, eguneko gai-zerrendaren barruko gaien azterketa amaitutakoan, eta eskaera eta galderen txandarekin hasi aurretik, alkateak galdegingo du ea talde politikoen batek, herritarren batek edota herritarren talde edo elkarteren batek, presazkoa jotzearen, gai-zerrendan agertzen ez den, eta eskaera eta galderen atalean tokirik ez duen gairen bat proposatu nahi dion Udalbatzari. Horrela balitz, proposamena egiten duen taldearen bozeramaileak arrazoitu egingo du gaia eztabaidaren egokitasuna. Bozketaren emaitza baiezkoa balitz, bertaratuen gehiengo absolutuz, Araudi honetako 64. artikuluan eta hurrengoetan aurreikusitako prozedura jarraituko da. Zenbaki honetan xedatutakoa ez da inolaz ere aplikagarri izango zentsura-mozioaren*

*kasuan, zeina Hauteskunde Lege Orokorrean xedatutakoak arautuko baitu.»*

24. Udal Araudi Organikoaren 71. artikulua 2. eta 3. atalak, modu honetan idatzita geratuko dira:

2. «Proposamena edota mozio arrunta: Udalbatzan erabakitzeko proposamena da. Deialdiarekin batera doan eguneko gai-zerrendan barne sartutako gai bati buruzkoa da, eta ez du inongo informazio batzorderen aurretiazko irizpenik jaso. Araudi honetako 54.3 artikuluan xedatutakoari jarraitzen dio. Zati batean azalpenak edo arrazoitzea jasoko ditu, eta bestean, hartu beharreko erabakia proposatuko du. Ezingo da proposamen bat eztabaidan eta bozketan sartu, aurretik berresten ez bada, gaiak eguneroko gai-zerrendan sartzeari buruz 54.3 artikuluan xedatutakoaren arabera. Gaiak talde politikoek proposatzen dituztenean, honako prozedura honi jarraituko zaio:

- a) Idatziz aurkezten diren mozioak Idazkaritzan entregatuko dira, osoko bilkura egitea aurreikusita dagoen data baino zazpi lanegun lehenago, gutxienez. Idazkaritzak, eginbide batean, mozioa aurkeztu den eguna eta ordua jasoko ditu.
- b) Udalbatzaren gai-zerrendan sartu ezin daitezkeen mozioak, epez kanpo jaso direlako, Udalbatzaren hurrengo ohiko osoko bilkuran sartuko dira, nahitaez. Hala ere, mozioa aurkezten duenak premiazko prozedurara jo ahal izango du, hurrengo atalean aurreikusita dagoen bezala.
- c) Alkatetzak, Bozeramaileen Batzordeari entzun ondoren, eta ebazpen arrazoitu bidez, ezetsi egin dezake mozio bat gai-zerrendan sartzea. Gai-zerrendan ez da sartuko udal eskumenekoak ez diren gaiak buruzko moziorik, ez bada Udalbatzan gehiengoa duten talde politikoek, Bozeramaileen Batzordean, gaia osoko bilkurara eramateak berebiziko gizarte-interesa duela erabaki badute.
- d) Mozioak, urgentziazko prozeduran aurreikusitakoa izan ezik, idatziz aurkeztuko dira, eta proposatzen duten talde politikoetako bozeramaileek, proposamena egiten duten zinegotziek edo Gardentasunari, Gobernu Irekiari eta Herriarren Parte-hartzeari buruzko Araudiak mozioak aurkezteko ahalmena ezagutzen dien kolektiboek sinatuta joan beharko dute.
- e) Mozioek, zati batean, azalpenak edo arrazoitzea jasoko dituzte, eta bestean, hartu beharreko erabakia proposatuko dute.

3. Premiazko mozioa: Udalbatzari zuzenean aurkezten zaion proposamena da, 64.5 artikuluan xedatutakoaren arabera. Ahoz zein idatziz aurkeztu ahal izango da. Ezingo da premiazko moziorik aurkeztu baldin eta haren gaia, Udalbatzak lehenago baztertutako mozio arrunt baten gai bera bada.»

25. Udal Araudi Organikoaren 72. artikulua, modu honetan idatzia geratuko da:

*«72. artikulua. Basauriko herritarrek, elkarteek, erakundeek eta kolektiboek mozioak, eskaerak eta galderak aurkeztu ahal izango dituzte, Gardentasunari, Gobernu Irekiari eta Herritarren Parte-hartzeari buruzko indarreko Araudi Organikoan ezarritako baldintzetan.»*

26. Udal Araudi Organikoan artikulua berri bat sartzen da, 78 bis artikulua, hitzez hitz honela dioena:

*«78 bis artikulua. 1. Salbuespenez, Udalbatzak ez badu, lehen bozkaketan, toki araubideari buruzko indarreko legeriak erabakiak hartzeko aurreikusitako beharrezko gehiengoa lortzen, Tokiko Gobernu Batzarrak honako hauek onesteko eskumena izango du:*

*a) Jarraian datorren ekitaldiaren aurrekontua, baldin eta luzatutako aurrekontua baldin badago.*

*b) Plan ekonomiko-finantzarioak, oreka berreskuratzeko planak eta doitze planak. Apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoan jasota daude guztiak.*

*c) Udalbatzaren saneamendurako planak, edota zorrak murrizteko planak.*

*d) Udalbatza finantzaketarako aparteko mekanismoetan sartzea, hain zuzen ere, apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoak aurreikusitako horietan; bereziki, likideziari laguntzeko aparteko neurriak erabiltzea (administrazio publikoen berankortasunari aurre egiteko eta finantza-arazoak dituzten tokiko erakundeei laguntzeko premiazko neurriak jasotzen dituen ekainaren 28ko 8/2013 Errege Dekretu-legean jasotakoak).*

*2. Tokiko Gobernu Batzarrak, aurreko paragrafoan aipatutako gaien alorrean hartutako erabakien berri emango dio Udalbatzari, erabakiak hartu eta gero egiten den hurrengo osoko bilkuran. Erabaki horiek, gainera, argitaratu egingo dira, aplikagarri zaizkien arau orokorrek xedatutakoarekin bat etorrira.»*

27. Udal Araudi Organikoaren 84. artikuluan 2. atala sartzen da, eta aurreko 2. atala 3. izatera igaroko da:

*«2. Ez da beharrezkoa bertaratutakoek eskaera eta galderen txandan izandako parte-hartzeak bilkurako aktan sartzea. Nahikoa izango da idazkariak horiei buruzko aipamen laburra egitea.»*

28.99. artikuluko 3. atala, modu honetan idatzita geratuko da:

*«3. Alkatetzari edo batzordeko uneko lehendakariari dagokio deialdiak egitea. Bestalde, batzordeko kideei jakinarazi egin beharko zaizkie deialdi horiek, edo, bere kasuan, udal taldeei, berrogeita zortzi orduko aurrerapenarekin, gutxienez, eta premiazkoen kasuan izan ezik. Edozelan ere, deialdiari erantsiko zaizkio eguneko gai-zerrenda, eta batzordeari aurkeztutako erabakirako proposamenak; kontu-emateak, berriz, ez.»*

29.105. artikuluko 3. atala honelaxe idatzita geratuko da (pendiente dago egiaztatzea, grabazioarekin):

*«3. Kontuen Batzorde Bereziari dagokio Udalbatzak onetsi beharreko zenbait kontu aztertzea eta horiei buruzko txostena egitea, hala nola, Udalaren, bere erakunde autonomoen, eta horien bien arteko kontu bateratuei buruz, Bizkaiko Lurralde Historikoari aplikagarri zaion Toki Erakundearen Kontabilitateari buruzko araudian xedatutakoaren arabera. Batzorde berezi horrek gauza bera egingo du Udala kide den udalaz gaindiko erakundearen kontuekin.»*

30. 107. artikuluko 1. atala, modu honetan idatzia geratuko da:

*«107. artikulua. 1. Bozeramaileen Batzordea kontsultarako eta Alkatetzari laguntzeko organoa da. Bere xedea da Udalbatza eratzen duten talde politiko guztien iritzia ezagutzea. Bere jarduera ez da juridikoki loteslea Alkatetzarentzat, eta bertan har daitezkeen erabakiek ere ez dute udal administrazio-txostenaren baliorik. Batzordearen zeregina anitza da: etorkizuneko jarrerak adostea; udal komunikatuak idaztea, non talde bakoitzaren iritzia adieraziko den zenbait gertakizun, egoera, eta abarren aurrean; eztabaidak antolatu eta erraztera bideratutako irizpideak finkatzea; edota interes orokorreko adierazpen orokorrak onestea.»*

31. «Auzoetako Udal Batzordeak» esapiderearen ordean, «Auzo kontseiluak» jarri behar du aurrerantzean, 114. artikuluko 1. atalean.

32. 115. artikuluari 4. atala gehituko zaio, eta horren hurrengoak berriro zenbakituko dira. Hona hemen:

*«4. Berezi, enpresa-erakunde publikoak edo tokiko merkataritza sozietateak eratu ahal izango dira, bakar-bakarrik, kapital soziala*

*titulartasun publikokoa denean. Gainera, horrelako enpresak eratzeari buruzko memorian, egiaztatu egin beharko da Udalarentzat jasangarriagoa eta eranginkorragoa dela horrelakoak sortzea, dena delako zerbitzua toki erakundeak edota erakunde autonomoak berak kudeatzea baino; hori guztia, gainera, errentagarritasun ekonomikoa lortzeko eta inbertsioa berreskuratzeko printzipioen arabera ondorioztatu beharko da. Beste alde batetik, jasotako aholkularitzari buruzko memoria ere agertu beharko da Udalbatzari aurkeztuko zaion espedientean. Zerbitzuaren kostuari eta izandako laguntza teknikoari buruzko txostenak ere txertatuko dira espediente horretan, eta horiek, gainera, argitaratu egin beharko dira. Eragin horietarako, tokiko kontu-hartzailearen txostena eskatuko da. Berak balioetsiko du egindako proposamenen finantza-jasangarritasuna, aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-jasangarritasunari buruzko indarreko legediak aurreikusitakoaren arabera.»*

33. Baliogabetu egiten da Udal Araudi Organikoaren VI. Titulua, «Herritarraren Estatutua» izenekoa, eta, ondorioz, berriro zenbakitu behar dira VII. eta VIII. tituluak (aurrerantzean VI. eta VII. izango dira, hurrenez hurren).

34. Aurreko guztiaren eraginez, 136. artikulua 124. Izatera igaroko da, eta lehengo VII. Tituluko (orain VIII. Titulua) prezeptu bakarra, berriz, 125. artikulua izango da aurrerantzean.

**BIGARRENA.-** Erabaki hau jendaurreko jartzea. Horretarako, dagokion iragarkia jarriko da BAOn eta Gardentasunaren webgunean, interesdunek erreklamazioak eta iradokizunak egin ahal izateko HOGEITA HAMAR EGUNeko epean, iragarkia BAO argitaratzen den datatik zenbatzen hasita.

**HIRUGARRENA.-** Epe hori igarota, Udalbatzak ebatzi egingo ditu aurkeztutako erreklamazio eta iradokizunak. Erreklamazio edo iradokizunik aurkeztu ez balitz, ordura arte behin-behinekoa zen erabakia behin-betiko bihurtu dela joko da.